



TEATRO
ARRIAGA
ANTZOKIA

Ainhoa Artetak zarzuelako erromantzak eta operako ariak eskainiko ditu *Emakume izenarekin*, ostegunean Arriaga Antzokian

- Soprano tolosarra, Rubén Fernández Aguirre maisuak pianoan lagunduta arituko da ostegunean, martxoaren 14an, 19:30ean, eskainiko duen kontzertuan.
- Errepertorioan, besteak beste *Tosca*, *Manon Lescaut* edo *Mirentxu* obretatik “emakume izenarekin” lotutako konposizioak eskainiko dituzte; eta horrez gain egile garaikideei tarte bat ere eskainiko diete.

Bilbon, 2019ko martxoaren 12an.- Ainhoa Arteta Arriaga Antzokira itzuliko da ostegun honetan, martxoaren 14an. Soprano tolosarrak, ***Emakume izenarekin*** izeneko oso kontzertua eskainiko du **Rubén Fdez. Aguirrek** pianoan lagunduta, non zarzuelako erromantzak eta operako ariak abestuko dituen, besteak beste *Mirentxu*, *La del manojo de rosas*, *Tosca* edo *Manon Lescaut* lanetatik jasotakoak. Konposizio hauen artean, batzuk aipatzearen, *Mirentxu*-tik ateratako “Goizeko eguzki argiak”; *La del manojo de rosas* lanaren zati den “No corté más que una rosa”, eta *Tosca* obran txertatuta dagoen “Vissi d’arte” pieza izango ditugu entzungai, besteak beste.

Gainera, sopranoak eta piano jotzaileak, emanaldiaren lehenengo partean (independentea dena), gaur egungo hiru autoreren konposizioak interpretatuko dituzte: Antón García Abril, Lorenzo Palomo eta Miquel Ortega. Edertasun melodiko handiko doinuak izango dira, bai eta testuaren eta musikaren arteko lotura zoragarria dutenak. Aipatu beharra dago, halaber, hautatutako hiru egile horiek harreman berezia daukatela artistekin. Izan ere, Ainhoa Arteta eta Rubén Fernández Aguirre haiekin lan egiteko ohorea izan baitute.

ARRIAGA ANTZOKIKO SARRERAK

- 13,50 eta 46 euro artean
- Salgai www.teatroarriaga.eus helbidean, 946 850 850 telefonoaren bitartez edo antzokiko txarteldegietan, aurretiazko salmenta ordutegian.

Informazio gehiago:
Komunikazioa – ARRIAGA ANTZOKIA
Jon Rozadilla Urrutia – 652 738 307
comunicacion@teatroarriaga.eus
www.teatroarriaga.eus